

# ERRENTERIAKO UDALA



Errenteriako Udala



Ayuntamiento de Errenteria

AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA

# AURREKONTUAK

## PRESUPUESTOS

# 2018



## **2018KO AURREKONTUA: AURKIBIDEA**

### **PRESUPUESTO 2018: ÍNDICE**

- 1.- **ALKATEAREN MEMORIA**  
MEMORIA DEL ALCALDE
- 2.- **SAIL ETA AZPISAILETAKO MEMORIAK**  
MEMORIAS ÁREAS Y SUBÁREAS
- 3.- **AURREKONTU KONTOLIDATUA**  
PRESUPUESTO CONSOLIDADO
- 4.- **UDAL AURREKONTUA: SARRERAK ETA GASTUAK**  
PRESUPUESTO MUNICIPAL: INGRESOS Y GASTOS
- 5.- **KONPROMISO KREDITUAK: ERANSKINA.**  
ANEXO CRÉDITOS DE COMPROMISO
- 6.- **INBERTSIOEN ERANSKINA**  
ANEXO DE INVERSIONES
- 7.- **UDAL LURZORU ONDAREAREN TXOSTENA**  
INFORME PATRIMONIO MUNICIPAL DEL SUELO
- 8.- **TRANSFERENTZIA ARRUNTEN ERANSKINA**  
ANEXO TRANSFERENCIAS CORRIENTES
- 9.- **ZORPEKETARI BURUZKO ERANSKINA**  
ANEXO DEL ENDEUDAMIENTO
- 10.- **PERTSONAL ERANSKINA**  
ANEXO DE PERSONAL
- 11.- **UDAL PATRONATUAK: ZAHARREN EGOITZA ETA ERREENTERIA MUSIKAL**  
PATRONATOS MUNICIPALES: RESIDENCIA DE ANCIANOS Y ERREENTERIA MUSICAL
- 12.- **ITXITAKO AZKEN LIKIDAZIOA, LORTUTAKO GAUZATZE MEMORIA ETA AURTENGO AURRERAPENA**  
ÚLTIMA LIQUIDACIÓN CERRADA CON GRADO EJECUCIÓN Y AVANCE EJERCICIO



- 13.- AURREKONTU EXEKUZIOA UDAL ARAUA 2018**  
NORMA MUNICIPAL DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA 2018
  
- 14.- KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA**  
INFORME DE INTERVENCIÓN
  
- 15.- UDAL FINANTZAKETARAKO FONDO FORALA**  
FONDO FORAL FINANCIACIÓN MUNICIPAL
  
- 16.- GASTU PROGRAMEN ERANSKINA**  
ANEXO PROGRAMAS DE GASTOS
  
- 17.- ADIERAZLE EKONOMIKO FINANTZIEROAK**  
INDICADORES ECONOMICO-FINANCIEROS

Errenteriako Udala



Ayuntamiento de Errenteria

# AURREKONTUAK PRESUPUESTOS

# 2018

## 1.- ALKATEAREN MEMORIA

MEMORIA DEL ALCALDE

ART.6, 3 E  
21/2003 F.A





**2018KO AURREKONTUAK**

**PRESUPUESTOS 2018**

**ALKATETZAKO MEMORIA**

**MEMORIA DE ALCALDÍA**

**1) Aurrekontu-proiektuaren testuingurua**

**1) Contexto del proyecto de presupuestos.**

2018. urteko aurrekontu orokorrek berrikuntza gisa dute Errenteriako Udala gauzatzen ari den administrazioa berritzeko prozesuaren baitan eratu direla, besteak beste, 2025 Plan Estrategikoaren eta 2015-2019 Legegintzaldiko Planaren gidalerroei jarraiki, administrazio efikazagoa eta eraginkorragoa sortzeko, eta, batez ere, pertsonen zuzendua. Testuinguru horretan kokatzen da 2017. urtean zehar gauzatutako administrazio-berrantolaketa 2019 Helburu kudeaketa plana, gutxi barru irekiko den ZUII zerbitzua, edo 2018. urterako lehen aldiz planteatzen diren helburuen arabera udal aurrekontuak eratzea.

Los Presupuestos Generales del año 2018 tienen como novedad que han sido elaborados en el marco del proceso de modernización administrativa que esta llevando a cabo el Ayuntamiento de Errenteria, para, entre otros, siguiendo las directrices del Plan Estratégico 2025 y Plan de Legislatura 2015-2019, crear una administración más eficaz y eficiente, y sobre todo, dirigida a las personas. En este marco se encuadra la reorganización administrativa llevado a cabo en el año 2017, el plan de gestión Objetivo 2019, la próxima apertura del servicio ZUII, o la elaboración de los presupuestos municipales por objetivos que por primera vez se plantea en el ejercicio 2018.

Helburuen araberako aurrekontuei dagokienez, nabarmendu behar da, 2018. urteko Aurrekontuak eratzeke hausnarketa bat aurrera eraman dela, sartutako gastuen programei buruzkoa, hala nola lortu nahi diren helburuei buruzkoa.

En relación a los presupuestos por objetivos, señalar, que en la elaboración de los Presupuestos del año 2018 se ha llevado a cabo una reflexión en relación a los programas de gasto incluidos, y los objetivos que se persiguen.

Gastu programak birsailkatu egin dira, eta aldi berean, horietako bakoitza kokatu egin da hiru kudeaketa alor nagusietako batean (antolaketa, lurraldea eta herritarrak), eta horrek berekin ekarri du udal gastu eta sarrera guztiaren sailkapen berri bat egitea.

Se ha procedido a la reclasificación de los programas de gasto, y al mismo tiempo, a encuadrar cada uno de los mismos en unos de los tres grandes ámbitos de gestión (organización, territorio o ciudadanía), lo que ha supuesto también una nueva clasificación orgánica de todo el gasto e ingreso municipal.

Lan horrek 2018. ekitaldian jarraituko du, gastu programen fitxak guztiak berrikusiz, hala nola helburuekiko eta adierazleekiko lotura; era horretan, behin ekitaldia amaiturik aurreikusitako helburuak bete diren ebaluatu ahal da, eta ebaluazio hori kontuan hartu ahal dadin hurrengo ekitaldiaren aurrekontuak eratzeke garaian.

Este trabajo tendrá su continuidad en el ejercicio 2018, con la revisión de todas las fichas de los diferentes programas de gasto, y su vinculación a objetivos e indicadores; de forma que una vez finalizado el ejercicio pueda evaluarse el cumplimiento de los objetivos previstos, y dicha evaluación pueda tomarse en cuenta en la elaboración de los presupuestos del próximo ejercicio.

Azken batean, lortu nahi dena da udal aurrekontuak izan daitezela udal jarduera guztiaren kudeaketa integralaren tresna, administrazio-jardunean efikazia lortzearen, eta, baita baliabide publikoen erabileran eraginkortasuna ere.

En definitiva, lo que se persigue es que los presupuestos municipales constituyan el instrumento de gestión integral de toda la actividad municipal, al objeto de lograr la eficacia en la acción administrativa, y la eficiencia en la utilización de los recursos públicos.



2) Prestaketa eta parte-hartzea

Ziurrenik udal aurrekontu hauen ezaugarri nagusietakoa da 2025 Plan Estrategikoko proiektuak gauzatzea dutela xede. Hala ere, azpimarratu behar dugu egungo aurrekontuak idazteko kontuan hartu direla auzo-batzarretan jasotako eskaerak eta herriko elkarteek adierazi dizkiguten kezkek eta beharrak nahiz ezustekoan sortzen diren eta gerorako utzi ezin diren beharrak.

3) 2018ko aurrekontuko sarrerak eta gastuak

1. Sarrerak:

Sarrerak kalkulatzeko oinarri lhartu da 2016eko likidazioa. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2018rako egindako sarrera-aurreikuspenari kendu dizkiogu 189.000 €, zuhurtziagatik, behin betiko datuak eskuartean izan arte.

Ordenantza Fiskaletan, herritarren egoera sozio-ekonomikoaren eta kalitatezko zerbitzu publikoan bermatzeko behararen artean oreka bilatze aldera azken urteotako izozketen ostean, % 2ko igoera orokor bat adostu dugu izozketa nabarmenekin batera, esaterako, OHZ, IHondakin zerbitzua edo Herritarren Arretarako Zerbitzua, hala nola beste hainbat hobari jarduera ekonomikoa edo ingurumen hobekuntza sustatzera bideratuak. Edonola ere, proposatutako igoera izango litzateke gastu arruntaren gaineko % 0,13 ponderatua

2. Gastuen egoera:

Udal aurrekontu proiektuaren zenbatekoa 51.768.834 € dira, eta honek % 1,23ko gutxitzea da aurreko urtearekiko. Gutxitze horren arrazoia, batik bat, dator eskatutako mailegua gutxitzeagatik 138.000 €an aurreko urtearekiko. Horrez gain, amortizazioak baino txikiagoak diren maileguak eskatzeko politikarekin jarraituko dugu; eta, horren arrazoia ere bada gastu arruntak egonkortu direla eta batik bat higiezina eskuratzeko eragiketa

2) Marco de elaboración y participación

Probablemente uno de los elementos que más caracterizan los presentes presupuestos municipales son los proyectos de materialización del propio Plan Estratégico 2025. Sin embargo, también hemos de destacar que la redacción de los actuales presupuestos viene marcada por las demandas recogidas en las diferentes asambleas vecinales y las aportaciones de las asociaciones locales que han ido dando traslado de sus inquietudes y necesidades, así como por las necesidades que van surgiendo de forma imprevista y que no se pueden demorar.

3) Estado de ingresos y gastos en los presupuestos del año 2018

1. Estado de Ingresos:

Los ingresos han sido calculados tomando como base los datos de la liquidación del 2016. A la previsión de ingresos realizada por la Diputación Foral de Gipuzkoa para 2018, hemos deducido 189.000€ euros, por criterios de prudencia, hasta conocer los datos definitivos.

En las Ordenanzas Fiscales, en aras a buscar un equilibrio entre la situación socio-económica de la ciudadanía y la necesidad de garantizar unos servicios públicos de calidad tras las congelaciones de los últimos años, hemos acordado una subida del 2% general con notables congelaciones, como del IBI, del servicio de Residuos o del Servicio de Atención Domiciliaria, y otra serie de bonificaciones que siguen buscando impulsar la actividad económica o la mejora medioambiental. En todo caso, la subida propuesta supondrá un 0'13% ponderado sobre del ingreso corriente.

2. Estado de Gastos:

El Proyecto de Presupuesto del Ayuntamiento asciende a 51.768.834 €, lo que supone un decremento con respecto al año anterior en un 1,23%. Dicha disminución viene motivada principalmente por la reducción del préstamo solicitado con respecto al año anterior en 138.000€, continuando además con la política de solicitar los préstamos por debajo de las amortizaciones. También viene motivada por la



bikoitza izan zelako iaz, sarrerek nahiz gastuak 780.000 €an igo zituena, baia aurten aurrekontuetatik desagertu egingo dira.

Langile-gastuak 904.000 € igo dira zerbitzuak hobeto emateko eta, zehazki, azpimarratu behar da gobernu-taldeak Herritarren Arretarako Zerbitzua jartzearen nahiz Trafiko eta Garraioa, Hiri Mantenimendua eta Gizarte Zerbitzuak arloak indartzearen alde egiten duen apustua.

Kulturaren aldeko apustua, eta Lekuona Fabrikaren proiektua aurrera eramateko udal honetan ordezkaturako talde politiko guztien erabaki irmoa, espresuki agertzen da aurrekontuetan, non bertan jasota geratzen den 2.800.000 €ko aplikazioa kultur ekipamenduen atalean. Nabarmendu behar dugu 2025 Plan Estrategiakoren elementu esanguratsuenetako bat dela kulturaren alde egiten den apustua, eta horrekin batera, "Lekuona Kultur Fabrika"ren aldeko apustua. Kultur espazio hori bideratuko da udal Kultur Zentroa sortzeko, non bertan kultura sortu eta erakusleko guneak sustatuko diren. Halaber, espazio berean eta proposamen horretan bertan kokaturik sormenezko liburutegia kokatuko da. Proiektu horiekin batera erabilera anitzeko espazioak eta espazio irekiak izango dira, aisialdi eta sormenerako guneak, gune irekiak eta erabilera anitzekoak lortzeko, beste gaien artean, etengabe aldatzen diren herritarren beharretara egokitu eta guztiaren batasun koherente konpartitua egin ahal izateko. Espazio horrek, orokorrean, pertsonen eta kulturen arteko harremana sustatzeko laguntza ematearen alde apustua egingo du eta asmoa izango du gizarte interakzioa eta sormena bultzatzea. Espazio horrek, azken batean, udalerriko beste hainbat tokitan proiektatu diren bete batzuekin batera, bilatu nahi duena da kulturaren ardatz bihurtzea herrian.

Oraindik ere apustua da gizarte-babesa mantentzea, orain arte bezalaxe, gizarte kohesionatuaren elementu eragile izan dadin. 920.000 € sartu dira gizarte-larrialdiko laguntzetarako, Eusko Jaurlaritzaren irizpideekin estaltzen ez diren espazio eta zenbatekoetara iristeko, nahiz eta haren eskumenekoa izan gaia. Babes sozialeko, garapen sozio-ekonomikoko eta

estabilización de los gastos corrientes y principalmente, porque el año anterior hubo una doble operación de adquisición y venta de inmueble que incremento en 780.000€ tanto los ingresos como los gastos municipales, y este año desaparece de los presupuestos.

Los gastos de personal se incrementan en 904.000€ con el objeto de mejorar la prestación de servicios, y en concreto, es de destacar la apuesta que este Equipo de Gobierno hace por la puesta en marcha de un nuevo Servicio de Atención Ciudadana, así como en reforzar las áreas de , Trafico y Transporte, Mantenimiento Urbano y Servicios Sociales.

La apuesta por la cultura, y la firme decisión de llevar a cabo el proyecto de la Fábrica Lekuona por parte de todos los grupos políticos representados en el ayuntamiento, queda reflejada de forma expresa en los presupuestos, donde queda recogida la aplicación que asciende a 2.800.000 € en el apartado equipamientos culturales. Hemos de destacar como uno de los elementos significativos del Plan Estratégico 2025 la apuesta que se hace por la cultura y, junto a ésta, la apuesta por la "Fábrica Cultural Lekuona", espacio que irá destinado a la creación de un Centro Cultural municipal para impulsar espacios de creación y exhibición cultural. También, en el mismo espacio y entroncado en la misma propuesta se ubicará un proyecto de biblioteca creativa. Junto a estos proyectos se incluyen espacios multiusos y abiertos que discurren entre espacios de ocio y creatividad, espacios abiertos y polivalentes que persiguen, entre otras cuestiones, poder adaptarse a las cambiantes necesidades de la ciudadanía y hacer del todo una unidad coherente compartida. Un espacio, en general, que apuesta por contribuir al fomento de la relación entre las personas y las culturas y que pretende impulsar la interacción social y la creatividad. Un espacio, en definitiva, que junto con otros que ya están proyectados en distintas ubicaciones del municipio, buscan ser el eje vertebrador de lo cultural en el municipio.

Se sigue apostando por el manteniendo de la protección social, tal como se ha hecho hasta la fecha, como elemento tractor de una sociedad cohesionada, incorporando la cantidad de 920.000€ para ayudas de emergencia social, cubriendo los espacios y las cantidades a las que no se llega con los criterios del Gobierno Vasco, pese a ser de su competencia. Se sigue apostando



enplegua sortzeko politiken alde egiten jarraitzen dugu eta, ondorioz, ahal den neurrian krisiaren eragina arintzeko, 500.000 €ko partida onartu dugu Enplegu-planetarako.

Guztion mugikortasunaren eta auzoetara hurbiltzeko politikaren alde jarraituz, aplikazioak gehitu dira Galtzarabordako nahiz Beraungo igogailuetarako.

Galtzarabordako igogailua amaituko dugu, Galtzarabordako parkea era irisgarri batean komunikatzeko, Urdaburu kaletik, Murumendi, Larrunarri eta Jaizkibel kaleekin eta Galtzaraborda etorbidearekin, udal igerilekuetara nahiz anbulatoriora iristeko moduan. Aurrekontua guztira 600.000 € izango dira. Ildo bereari jarraituz, Beraungo igogailuaren proiektuari hasiera emango diogu. Era horretan, 700.000 €ko aurrekontuarekin, ahalbideratuko da irisgarritasuna hobetzea Beraun, Jesus Guridi, Krisostomo Arriaga eta Julian Lavilla kaleen eta Galtzaraborda etorbidearen artean.

Halaber, nabarmentzekoa da jarduera fisikoaren alorrean gehitu diren aplikazioak bi proiektu aurrera eramateko, bata Fanderiako Frontoirako, eta, bestea, Beraungo Estadioa birmoldatzeko. Era berean, Arramendi parkerako izan den parte-hartze prozesuari jarraipena emanaz, aplikazio bat ezarri da prozesu horren emaitzei erantzuna emateko. Proiektua 200.000 € izango dira. Beste aplikazioa bat ere gehitu da Fanderiako Errotaren Interpretazio Zentrorako.

Halaber, 200.000 € inbertituko dira kaleak asfaltatzeko, eta markesina berriak jartzen jarraitzera bideratuko ditugu 20.000 €.

Kultura sustatzen jarraituko dugu, garapen sozialaren eta aniztasunaren tresna izateaz gain, ekonomia bultzatzeko tresna izan dadin. Kultura eta merkataritza sustatzeari dagokionez, aipatu behar dugu Atlantikaldiaren aldeko apustua egiten dugula. Aldi berean, ikastetxeak hobetzen jarraitzen dugu, eta aurten 180.000 € jarri ditugu inbertsioetarako eta mantentze-lanetarako.

Gazterian 15.000 € sartuko dira Plan Estrategikoarekin jarraitzeko eta 16.000 €ko aplikazioa Merkatzuzarren kokatuko den familiei bideratutako espazio berrirako. Sexu-

por las políticas de protección social de desarrollo socio-económico y de generación de empleo, y en orden a mitigar en la medida de lo posible el impacto de la crisis, se aprueba una aplicación de 500.000€ destinada a Planes de Empleo.

Continuando con la apuesta de movilidad universal y políticas de acercamiento a los barrios se incorporan aplicaciones tanto para el ascensor de Galtzaraborda como para el de Beraun.

Finalizaremos la obra del ascensor de Galtzaraborda, comunicando de forma accesible el parque de Galtzaraborda, desde la calle Urdaburu, con las calles Murumendi, Larrunarri, Jaizkibel y la avenida de Galtzaraborda, dando acceso tanto las piscinas municipales como al ambulatorio, y con un presupuesto total de 600.000€. Siguiendo en la misma línea, se iniciará el proyecto del ascensor de Beraun, que con un presupuesto de 700.000€ permitirá la mejora de la accesibilidad entre las calle Beraun, Jesús Guridi, Krisostomo Arriaga, Julian Lavilla y la Avenida de Galtzaraborda.

Es de destacar también en el ámbito de la actividad física las aplicaciones que se añaden para la realización de sendos proyectos, uno para el Frontón de Fanderia y otro para la remodelación del Estadio de Beraun. Del mismo modo, y dando continuidad el proceso de participación habido para el parque de Arramendi, se incluye una aplicación para dar respuesta a los resultados de dicho proceso, proyecto que ascenderá a 200.000€. También se incorpora una aplicación para el Centro de Interpretación del Molino de Fanderia.

También, se invertirán 200.000€ en asfaltado de calles y se continuará con la política colocación de nuevas marquesinas para lo que se destinarán 20.000 €.

Continuamos impulsando la cultura, además de como herramienta de desarrollo social y de la diversidad, como elemento tractor económico. Dentro del fomento de la cultura y del comercio añadir la apuesta que realizamos por Atlantikaldia. En este mismo orden, se sigue apostando por la mejora de las escuelas, donde este año se recogen más de 180.000€ en inversiones y mantenimiento.

En juventud se incorporan 15.000€ para la continuación del Plan Estratégico y una aplicación de 16.000€ para el nuevo espacio dedicado a las familias y que se situará en Merkatzuzar. También





aholkularitzarako 10.000 €ko beste aplikazio bat ere gehituko da. Euskararen aldeko ekarpenari dagokionez, nabarmentzekoa da 71.000 € bideratzen direla OARSOALDEAko kanpainetara, eta 87.000 € euskara ikasleen beken programaren diru-laguntzetarako.

Iraunkortasunaren alde egiten jarraitzen dugu eta horren adibide da ingurune osasungarri eta erakargarriagoaren aldeko Europako Alkateen erabakia sinatu dugula. Asmo hori gauzatzeko hainbat inbertsio egin ditugu klima-aldaketaren inguruko erabakiekin bat egiteko. Zehazki, eta 100.000 € mendi eta erreketan biodibertsitatea lehengoratzeko, eta beste 22.000 € Zarataren aurkako ekintza planerako. Jarraipena eman zaio bide publikoen sarea hobetzeko apustuari ere, 40.000 euroekin. Bestalde, eta EIEP burutzeko, alegia, klima-aldaketaren ondorioak arintzeko, 51.000 € inbertituko dira, eta energia berriztagarrietan 25.000 € eta auto elektrikoak kargatzeko puntu bat jarriko da, 10.000 €koa. Hondakinak prebenitzeko jardueri dagokienez, berriz, 200.000 € inbertituko dira.

Beste arlo batzuei dagokienez, saneamendu sarean ekintzekin jarraituko dugu prebentziozko ekintzen bidez, eta horretarako 100.000 € inbertituko dugu hobekuntzak egin eta sarean isurketak egitea saihesteko. Sare elektrikoa berritzeko 100.000 € inbertituko dugu, eta beste horrenbeste paperontziak, bankuak eta hiri altzarietako beste elementu batzuk berritzeko

Hala eta guztiz ere, esan behar dugu berandutze-interesak nabarmen jaitsi direla, Udalaren zorra murriztearen ondorioz.

Maileguari dagokionez, irizpide berari eusten diogu, maileguei amortizazioen azpitik eusteari; hartara, pixkanaka zorra gutxitzen ari gara.

Errenterian, 2017ko azaroaren 2an.

se añade una nueva aplicación de 10.000€ para asesoramiento sexual. En cuanto a la aportación que se realiza en favor del euskera, hemos de resaltar los 71.000€ que destinan a las campañas de OARSOALDEA y las subvenciones del programa de las becas para estudiantes de euskera, 87.000€.

Seguimos apostando por la sostenibilidad, objetivo que hacíamos doblemente nuestro mediante el acuerdo de Alcaldes Europeo que persigue un entorno más saludable y atractivo. Se traduce en diversas inversiones unidas a los acuerdos realizados sobre el cambio climático. Concretamente 100.000€ en restauración ambiental y biodiversidad en montes y ríos, y 22.000€ para el Plan de acción contra el ruido. También se da continuidad a la apuesta por la mejora de la red de caminos públicos, 40.000€. Por otro lado, y para el desarrollo del PAES, cuyo objeto es reducir los efectos del cambio climático, se invertirán 51.000€, y se invertirá en energías renovables 25.000€ y se colocará otro punto de recarga de coches eléctricos, 10.000€. También en actuaciones de prevención de residuos se invertirán 200.000€.

En otro orden de cosas, se continuará con las acciones en la red de saneamiento mediante acciones preventivas, para lo que invertiremos 100.000€ para realizar mejoras y evitar vertidos en la red. Se invertirán otros 100.000€ en reposición de la red eléctrica, y la misma cantidad en reposición de papeleras, bancos y otros elementos de mobiliario urbano.

Con todo, hemos de decir que los intereses e intereses de demora disminuyen consecuencia de la reducción de la deuda municipal.

En cuanto al préstamo, como ya hemos adelantado, continuamos con el criterio de solicitar préstamos por debajo de las amortizaciones, por lo que seguimos propiciando la reducción progresiva de la deuda.

Errenteria, 2 de noviembre de 2017

Stua./Fdo. Julen Mendoza Pérez  
Alkatea / El Alcalde



# AURREKONTUAK PRESUPUESTOS

## 2018

### 2.- SAIL ETA AZPISAILETAKO MEMORIAK

#### MEMORIAS ÁREAS Y SUBÁREAS

ART.6, 1 F  
21/2003 F.A



**ERRENTERRIAKO UDALA**

...Giza Baliabideak.....

**AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA**

...Recursos Humanos.....

**2018KO AURREKONTUA****MEMORIA****SAILA / AZPISAILA:****GIZA BALIABIDEAK**

Memoria honen xedea da Giza Baliabideetako sailaren / azpisailaren gastu eta sarrera aurrekontu proiektuaren ezaugarri nagusienak azaltzea, eta bereziki aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta sartu diren berrikuntzak azalartzea.

**Gastuen egoera:**

Funtsean aldatzen diren gastu programak honakoak dira:

**Segurtasun eta babes zibileko administrazio orokorraren programa (13000) Zenbatekoa: 4.876.526,72€**

Igoera % 12,51koa da, GARABI eta TAO zerbitzuak bere gain hartzen dituelako langile propioekin, horrek berekin dakarrelarik udaltzaingoaren agente postua 11 agente-kopuruan gehitzea.

**Zerbitzuetako mantentze-lanen programa (15340) Zenbatekoa: 336.073,41€**

Aurrekontua % 20,38an gutxitu da, izan ere, LAN BIDE 2017 enplegu planaren langileak kontratatzeak kopurua ez da kontsignatu programa honetan, eta IV kapituluan txertaturik geratu da.

**Obra Programa (16100) Zenbatekoa: 439.084,15**

Aurrekontua % 10,11 gehitu da, izan ere, langile postu guztietarako (5) aurrekontu-kontsignazioa esleitu da. 2017 ekitaldian postu batek ez zuen diru-hornidurarik

**Urak Programa (15341) Zenbatekoa: 439.084,15**

Aurrekontua % 3,52 gutxitu da, izan ere, arduradun postua soilik bi hilerako izendatu da (erretiroa) eta ingeniari tekniko postua berria izendatu da 10 hilabeterako.

**PRESUPUESTO 2018****MEMORIA****ÁREA / SUBÁREA:****RECURSOS HUMANOS**

La presente memoria tiene por objeto recoger las principales características del proyecto de presupuesto de gasto e ingreso del área / subárea de Recursos Humanos, y en especial, mencionar las novedades introducidas en comparación del presupuesto anterior.

**Estado de gastos:**

Los programas de gasto que se modifican sustancialmente son los siguientes:

**Programa Adm. General de la Seguridad y protección civil (13000) Importe: 4.876.526,72€**

Incremento del 12,51% al pasar los servicios de GRUA y OTA a ser asumidos con personal propio, lo que incrementa en 11 dotaciones el puesto de agente de la policía local.

**Programa Mantenimiento de servicios (15340) Importe: 336.073,41€**

Disminuye en el 20,38% como consecuencia de no consignar en este programa la cantidad para contratación del personal del plan de empleo LAN BIDE 2017, que ha quedado incluida en el capítulo IV.

**Programa Obras (16100) Importe: 439.084,15**

Se incrementa en el 10,11% al dotar consignación presupuestaria para todos los puestos de operarios (5) En el ejercicio 2017 un puesto no tenía dotación.

**Programa Aguas (15341) Importe: 439.084,15**

Disminuye un 3,52% como consecuencia de consignar el puesto de encargado unicamente para 2 meses (jubilación) y dotar un nuevo puesto de ingeniero técnico 10 meses.



**Bestelako Prestazio Ekonomikoak Programa enplegatuen alde (22100) Zenbatekoa:490.000€**

Aurrekontua % 8,92 gutxitu da, izan ere, aldez aurreko erretiroak direla-eta indemnizazio eta Elkarkidetzako ekarpenen diru-kopurua gutxitu da

**Programa Otras Prestaciones Económicas a favor de empleados (22100) Importe:490.000€**

Disminuye en un 8,92% al disminuir la cantidad por indemnizaciones por jubilaciones anticipadas y la aportación a Elkarkidetzeta.

**Gizarte Zerbitzu Orokorrak Programa (23000) Zenbatekoa: 545.112,68€**

Aurrekontua % 10,54 gehitu da, izan ere, zerbitzua hornitu da beste Gizarte Langile batekin.

**Programa Servicios Sociales Generales (23000) Importe: 545.112,68€**

Incremento del 10,54% al haber dotado al servicio de una Trabajadora Social nueva

**Berdintasunerako Programa (23150) Zenbatekoa: 82.350,29€**

Aurrekontua % 57,29 gehitu da, izan ere, programa honetan berdintasunerako dinamizatzaile beste postu koiuntural bat gehitu da.

**Programa Igualdad (23150) Importe: 82.350,29€**

Incremento de un 57,29% al haber incluido en este programa un puesto nuevo coyuntural de dinamizador/a de igualdad.

**Aniztasunerako Programa: Herritarren arteko Bizikidetzeta Sustatzea (32700) Zenbatekoa: 92.158,07**

Aurrekontua % 81,85 gehitu da, izan ere, aldi baterako administrari postua txertatu da.

**Programa Diversidad: Fomento de la convivencia ciudadana (32700) Importe: 92.158,07**

Incremento del 81,85% por la inclusión del puesto temporal de administrativo

**Kultura Programa (33000) :Zenbatekoa 505.986,75**

Programa honen aurrekontua % 5,75% gutxitu da, izan ere, komunikazio teknikariaren gastua 92050 Programa funtzionalera pasatu da.

**Programa Cultura (33000) Importe:505.986,75**

Este programa ha disminuido en el 5,75% al haber pasado el gasto correspondiente al técnico de comunicación al Programa funcional 92050

**Euskara Programa (33510) Zenbatekoa :323.193,36**

Aurrekontua % 21,58 gehitu da, izan ere, beste irakasle normalizatzaile baten gastua esleitu da.

**Programa Euskera (33510) Importe:323.193,36**

Se incrementa en el 21,58% por haber consignado el gasto para un profesor normalizador más.

**Euskaltegi Programa (33520) Zenbatekoa: 592.374,54€**

Aurrekontua % 4,03 gehitu da, izan ere, irakasle plantillako hutsik zegoen plaza betetzeko gastua esleitu da eta aldi baterako irakasle baten gastua kendu da.

**Programa Euskaltegi (33520) Importe:592.374,54€**

Se incrementa un 4,03% como consecuencia de haber dotado el gasto para una plaza vacante de plantilla de profesor y haber quitado el gasto de un profesor temporal.

**Gazteria Programa (33720) Zenbatekoa: 84.059,53€**

Aurrekontua % 2,15 gehitu da, izan ere, gazteriako aldi baterako beste dinamizatzaile postu bat gehitu da eta joan den ekitaldian zeuden bi administrari postuetako bat kendu da.

**Programa Juventud (33720)  
Importe:84.059,53€**

Se incrementa en 2,15% por la dotación de un puesto nuevo temporal de dinamizador de juventud y se quita el gasto de uno de los dos administrativos existentes en el pasado ejercicio.

**Hezkuntza Programa (32000) Zenbatekoa:  
316.538,65€**

Programa honen aurrekontua % 9,58 gutxitu da, izan ere, administrari-laguntzailearen postua aurrekontu-kontsignaziorik gabe utzi da.

**Programa Educación (32000)  
Importe:316.538,65€**

Este programa disminuye un 9,58% al dejar sin consignación presupuestaria el puesto de auxiliar administrativo.

**Herritarren Arretarako Programa (49110)  
Zenbatekoa: 907.787,97€**

Programa funtzional hori ekitaldi honetako 92050 zenbakikoarekin bat dator (Informazioaren gizartea eta herritarren parte-hartzea). Azken hau 273.746,80 €-rekin hornitu da.

Gastu igoeraren arrazoia da 2018 ekitaldirako informazioaren 8 agente postu eta horren arduraduna esleitu direla urte osoan (2107an soilik lau hilabete). Horrez gain, programa honetan sartu eta ekitaldi honetan zeuden programatik atera dira honako postuak:

- Informatiko erdi mailako teknikaria (informatika)
- 3 jakinarazle (2 idazkaritza eta 1 diru-bilketa)
- Komunikaziorako erdi mailako teknikaria (kultura)

**Programa Atención Ciudadana (49110)  
Importe:907.787,97€**

Este programa funcional se corresponde con el 92050 (Sociedad de la información y participación ciudadana) del presente ejercicio 2017 que está dotado con 273.746,80 €.

El incremento de gasto se justifica en que para el 2018 ya se dota a los 8 puestos de agentes de la información y a su responsable para todo el año (2017 únicamente 4 meses).

Además se incluyen en este programa y desaparecen del que se encuentran en este ejercicio los siguientes puestos:

- 1 técnico medio informático (informática)
- 3 notificadores (2 secretaría y 1 recaudación)
- 1 técnico medio de comunicación (cultura)

**Administrazio Orokorreko Programa (Idazkaritza (92000) Zenbatekoa: 272.675,15€**

Programa honen aurrekontua % 34,05 gutxitu da, izan ere, ZU! Zerbitzua ezartzea aurreikusita, zerbitzu horrek administrari-laguntzaile eta 2 jakinarazle gutxitu ditu herritarren arretarako zerbitzuan txertatzeko.

**Programa Administración General (Secretaría) (92000) Importe:272.675,15€**

Este programa ha disminuido en un 34,05% por la implantación prevista del servicio ZU! que reduce dos auxiliares administrativos y 2 notificadores para ser integrados en el programa de atención ciudadana

**Informatika Programa (92010) Zenbatekoa:  
165.206,00€**

Programa honen aurrekontua % 25,35% gutxitu da, izan ere, informatikako erdi mailako teknikari postua desagertu da herritarren arretarako programan txertatua gera dadin (49110).

**Programa Informática (92010)  
Importe:165.206,00€**

Este programa ha disminuido en un 25,35% por haber desaparecido la técnica media informática para quedar integrada en el programa de atención ciudadana (49110)



**Tokiko Zergak Kudeatzea Programa (93210)**  
**Zenbatekoa: 208.653,89€**

Programa horren aurrekontua % 8,87 gutxitu da, izan ere, ZUI Zerbitzua ezartzea aurreikusita, 6 hilabetean zehar administrari-laguntzaile postu bat gutxitu du.

**Programa Gestión de Tributos Locales (93210) Importe:208.653,89€**

Este programa ha disminuido en un 8,87% por la implantación prevista del servicio ZUI que reduce un auxiliar administrativo durante 6 meses.

**Diru-bilketa Programa (93220)**  
**Zenbatekoa:317.156,35€**

Programa horren aurrekontua % 18,25 gutxitu da, izan ere, ZUI Zerbitzua ezartzea aurreikusita, administrari-laguntzaile postu bat gutxitu da. Gainera, jakinarazlea herritarren arreta zerbitzura pasatu da (49110).

**Programa Recaudación (93220)**  
**Importe:317.156,35€**

Este programa ha disminuido en un 18,25% por la implantación prevista del servicio ZUI que reduce un auxiliar administrativo. Además se ha pasado el notificador al programa de atención ciudadana (49110)

**Ondarea Kudeatzeko Programa (93300)**  
**Zenbatekoa: 244.600,80€**

Programa horren aurrekontua % 21,27 gutxitu da, izan ere, goi mailako teknikari postuari ez zaio aurrekontu-kontsignaziorik esleitu.

**Programa Gestión de Patrimonio (93300)**  
**Importe:244.600,80€**

Se reduce un 21,27% al no haber sido dotado con consignación presupuestaria el puesto de técnico superior.

Azkenik, nabarmendu behar dugu igoera guztiek ezinbestekotzat jotzen diren zerbitzuei erantzuten dietela udal antolaketaren oinarritzko funtzionamendurako.

Por último, mencionar que todos los incrementos incluidos responden a nuevos servicios que se consideran indispensables para un funcionamiento básico de la organización municipal.

**Sarrerren egoera:**

2016. ekitaldiko likidazioaren datuak eta sarrerek 2017ko lehenengo bederatz hila betetan izandako bilakaera kontuan izanik kalkulatu dira.

Aldi berean 2018ko ordenantzen inguruan hartu diren akordioak kontuan hartu dira.

Transferentzia edo diru-laguntzei dagokienez, hurrengoak adierazi behar dira, dagozkion gastuekin batera:

**Enplegu planak**

Diru-sarrerak: 387.000€  
Gastuak: 559.000€

**Estado de ingresos:**

Han sido calculados tomando como base los datos de liquidación del ejercicio 2016, y la evolución de los ingresos en los nueve primeros meses del año 2017.

También se han tenido en cuenta los acuerdos adoptados en relación a las ordenanzas fiscales del ejercicio 2018.

En relación a las transferencias o subvenciones previstas cabe mencionar las siguientes, junto a sus correspondientes gastos:

**Planes de Empleo**

Ingresos: 387.000€  
Gastos: 559.000€



**Prestakuntza**

Diru-sarrerak: 8.000€

Gastuak: 45.000€

**Formación**

Ingresos: 8.000€

Gastos: 45.000€

Errenterian, 2017ko urriaren 26ean

En Errenteria, 26 de octubre de 2017

Sin.- Jaione Karrikiri  
Zinegotzi Delegatua

A handwritten signature in blue ink, consisting of several loops and a long vertical stroke.

Sin.- Asun Hernández  
(Sail / Azpisaileko arduradun teknikoa)

A handwritten signature in blue ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke.



**2018KO AURREKONTUA**

**MEMORIA: OGASUNA ETA GARAPEN  
EKONOMIKO SAILA**

Memoria honen xedea da Ogasuna eta Garapen Ekonomiko Sailaren gastu eta sarrera aurrekontu proiektuaren ezaugarri nagusienak azaltzea, eta bereziki aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta sartu diren berrikuntzak azalera.

**Gastuen egoera:**

Sartzen diren gastu programak hurrengoak dira:

- 931.00.- Kontabilitatea, administrazioa eta zergen ikuskaritza.
- 932.00.- Tributu sistemaren kudeaketa
- 929.10.- Bake Epaitegia
- 011.00.- Zor publikoa
- 433.00.- Enpresa Garapena: Oarsoaldea

**931.00 Programa.- Kontabilitatea, administrazioa eta zergen ikuskaritza**

Azterketa eta lan teknikoen aurrekontu aplikazioa, bereziki Auditoria zerbitzuaren kontratuaren aurreikuspena jasotzen duena, 30.000 eurotik 35.000 eurora handitzen da. 2018ko ekitaldian kudeaketa ekonomikoa hobetzea ekar dezatekeen bestelako lanak egiten hasia aurrekusten da: Dirulaguntzak, zergen inspektzioa, kontabilitate patrimoniala eguneratzea, etab.

Bestalde, 2017. urtean hasitako Udal Aurrekontuak helburuei begira jartzeko lanarekin aurrera egingo da.

**011 Programa.- Zor publikoa**

Udalak hitzartua dituen mailegu ezberdinen amortizazio eta interesen kopuruak jasotzen ditu.

Ezberdindu egin dira aurrekontu aplikazio ezberdinetan sektore publikoko maileguetatik datozen amortizazioak eta sektore pribatuarekiko maileguetatik datozenak.

**PRESUPUESTO 2018**

**MEMORIA: AREA DE HACIENDA Y  
DESARROLLO ECONÓMICO**

La presente memoria tiene por objeto recoger las principales características del proyecto de presupuesto de gasto e ingreso del área de Hacienda y Desarrollo económico, y en especial, mencionar las novedades introducidas en comparación del presupuesto anterior.

**Estado de gastos:**

Los programas de gasto incluidos son los siguientes:

- 931.00.- Contabilidad, administración e inspección de tributos
- 932.00.- Gestión del sistema tributario
- 929.10.- Juzgado de Paz
- 011.00.- Deuda pública.
- 433.00.- Desarrollo empresarial: Oarsoaldea

**Programa 931.00.- Contabilidad, administración y gestión de tributos**

La aplicación presupuestaria correspondiente a *Estudios y trabajos técnicos*, que principalmente recoge la consignación para los trabajos del servicio de Auditoria, se incrementa 30.000 a 35.000 euros. En el ejercicio 2018 quieren llevarse a cabo una serie de trabajos que redunden en una mejor gestión económica, en materia de subvenciones, inspección de tributos y contabilidad patrimonial.

Por otra parte, se continuará con el trabajo iniciado en el año 2017 para elaborar unos Presupuestos Municipales enfocados a la consecución de objetivos.

**Programa 011.- Deuda pública**

En el mismo se recoge la amortización e intereses de los diferentes préstamos concertados por el Ayuntamiento.

Se ha procedido a diferenciar en diferentes aplicaciones presupuestarias de gasto las amortizaciones de préstamos provenientes del sector público, y las provenientes del sector





privado.

Interesei dagozkien aurrekontu aplikazioen kopuruek behera egiten jarraitu dute, udal zorraren murrizketa eta euribor erreferentzialaren tasa baxuaren ondorioz. Hala ere, urtean zehar egon daitezkeen fluktuazioak direla, eta zuhurtasunez jokatuta 238.000 euro jaso dira.

Las aplicaciones presupuestarias correspondientes a intereses continúan disminuyendo a consecuencia de la disminución de la deuda municipal y el bajo nivel de la tasa del referencial euribor. Sin embargo, no se puede obviar que durante el año pueden existir fluctuaciones, de forma que empleando un criterio de prudencia se ha establecido un importe de 238.000 euros.

Maileguen amortizazioen kopuruei dagokienez, 2017ko 2.126.200 eurotik 2018an 1.987.130 eurora izan da bilakaera, aipatu den bezala udalaren zorra behera doalako.

En lo que a los importes de amortización de prestamos se refiere se pasa 2.126.200 euros, año 2017, a 1.987.130 euros, año 2018, a consecuencia de la disminución de la deuda municipal.

**433.00 Programa.- Empresa garapena: Oarsoaldea**

**Programa 433.00.- Desarrollo empresarial: Oarsoaldea**

Oarsoaldeari egin beharreko ekarpenen zenbatekoa baltzua emandako informazioaren arabera kalkulatu da.

El cálculo de las aportaciones a Oarsoaldea se ha efectuado en base a la información facilitada desde dicha sociedad pública.

**Sarrerren egoera:**

**Estado de ingresos:**

2016ko likidazioaren datuak eta sarrerek 2017ko lehenengo bederatzi hilabetetan izandako bilakaera kontuan izanik kalkulatu dira.

Han sido calculados tomando como base los datos de liquidación de 2016, y la evolución de los ingresos en los nueve primeros meses del año 2017.

Aldi berean 2018ko ordenantzen inguruan hartu diren akordioak kontuan hartu dira.

También se han tenido en cuenta los acuerdos adoptados en relación a las ordenanzas fiscales del ejercicio 2018.

*Tributu ez kontzertatuetako partehartzeari* dagokionez Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuak kontuan hartu dira. 2017tik 2018ra hazkundera %3,74koa izan da, eta 938.643 euro gehiago jasotzea aurreikusten da, guztira, 26.041.534 euro.

En lo que respecta a la aplicación de *Participación en los tributos no concertados* se han tomado en cuenta los datos facilitados por la Diputación Foral de Gipuzkoa. La variación entre los años 2017 y 2018 ha sido un incremento del 3,74 %. En concreto, se prevé recibir 938.643 euro más, haciendo un total de 26.041.534 euros.

Hala ere, kopuru horretatik 189.803 euro kanpoan utzi dira zuhurtzia printzipioaren arabera, eta behin betiko datuak ezagutu bitartean. Beraz, jasotako aurreikuspena 25.851.731 eurokoa da.

Sin embargo, de dicho importe se han detruido 189.803 euros siguiendo un principio de prudencia, y hasta conocer datos definitivos, de forma que la previsión recogida es de 25.851.731 euros.

Zorpetzeko finantza eragiketa bat aurreikusi da

Se ha previsto una operación financiera



inbertsioaren finantzaketarako, 1.961.000 eurokoa.

de endeudamiento para la financiación de la  
inversión, por importe de 1.961.000 euros.

Errenterian, 2017ko urriaren 27an.

En Errentería, 27 de octubre de 2017.

A handwritten signature in blue ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke.

Sin.- M<sup>a</sup> Jose Sanchez Plaza  
Kontuhartzailea

A handwritten signature in blue ink, featuring a large loop at the top and several smaller loops below.

Sin.- Jon Txasko Orgilles  
Ogasun eta Garapen Ekonomikoko  
Zinegotzi Delegatua



2018KO AURREKONTUA

PRESUPUESTO 2018

MEMORIA

MEMORIA

AZPISAILA:Hirigintza

Memoria honen xedea da **Hirigintza azpisailaren** gastu eta sarrera aurrekontu proiektuaren ezaugarri nagusienak azaltzea, eta bereziki aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta sartu diren berrikuntzak azalartzea.

GASTUEN EGOERA:

Sartzen diren gastu programak hauek dira:

**134.00 Programa.- Hiri-mugikortasuna.**

**150.00 Programa.- Etxebizitzaren eta hirigintzaren administrazio orokorra.**

**151.10 Programa.- Hirigintza: plangintza, kudeaketa, exekuzioa eta hirigintza-diziplina.**

**152.20 Programa.- Eraikuntzen kontserbazioa eta birgaitzea.**

**171.00 Programa.- Parke eta lorategiak.**

**172.10 Programa.- Hiriguneetako hots, argi eta atmosfera kutsaduraren aurkako babesa.**

**323.00 Programa.- Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeen eta hezkuntza bereziko ikastetxeen funtzionamendua**

**333.30 Programa.- Lekuona**

**337.10 Programa.- Jubilatuen etxeak**

**342.10 Programa.- Kirol instalazio nagusiak**

**431.00 Programa.- Merkataritza**

SUBÁREA:Urbanismo

La presente memoria tiene por objeto recoger las principales características del proyecto de presupuesto de gasto e ingreso del **subárea de Urbanismo**, y en especial, mencionar las novedades introducidas en comparación del presupuesto anterior.

ESTADO DE GASTOS:

Los programas de gasto incluidos son los siguientes:

**Programa 134.00.- Movilidad urbana.**

**Programa 150.00.- Administración general de vivienda y urbanismo.**

**Programa 151.10.- Urbanismo: planeamiento, gestión, ejecución y disciplina urbanística.**

**Programa 152.20.- Conservación y rehabilitación de la edificación.**

**Programa 171.00.- Parques y jardines.**

**Programa 172.10.- Protección contra la contaminación acústica, lumínica y atmosférica en las zonas urbanas.**

**Programa 323.00.- Funcionamiento de centros docentes de enseñanza infantil y primaria y educación especial.**

**Programa 333.30.- Lekuona**

**Programa 337.10.- Hogares del jubilado**

**Programa 342.10.- Instalaciones deportivas principales**

**Programa 431.00.- Comercio**



**13400 Programa.- Hiri-mugikortasuna.**

Partida. GALTZARABORDAKO IGOGAILUA  
(ULO):.....55.700,00 euro.

Urdaburu kalearen eta Galtzaraborda etorbidearen artean hiri-igogailua instalazio bukatzeko eta osagarritzko urbanizazioa egiteko.

Partida. BERAUNGO IGOGAILUA  
(ULO):.....40.000,00 euro.

Beraun kalea, erdi-parean, Galtzaraborda Etorbidearekin, Koldo Mitxelena Institututik gertu, lotzea da helburua, auzoko beheko eta goiko aldea lotzeko.

2019an obra jarraitu egingo du.

**15110 Programa.- Hirigintza: plangintza, kudeaketa, exekuzioa eta hirigintza-diziplina.**

Partida. PLAN OROKORRA:.....50.000,00 euro.

Plan Orokorra dokumentua aztertzea eta idaztea.

**15220 Programa.- Eraikuntzen kontserbazioa eta birgaitzea.**

Partida. EIT ETA BIRGAITZE LANAK  
EGITEKO DIRU  
LAGUNTZAK:.....100.000,00 euro.

Hirigune Historikoko eraikinetan eraikinen ikuskapen teknikoak (EIT) eta beste birgaitze lanak egiteko diru-laguntzak.

**Programa 13400.- Movilidad urbana.**

Partida. ASCENSOR DE GALTZARABORDA  
(PMS):.....55.700,00 euros.

Se plantea finalizar la Instalación del ascensor urbano entre Urdaburu kalea y Avenida Galtzaraborda y la urbanización complementaria correspondiente.

Partida. ASCENSOR DE BERAUN (PMS):  
.....40.000,00 euros.

Se plantea unir la zona baja del Bº de Beraun desde la mitad de Beraun Kalea con la zona alta a la altura de Galtzaraborda Etorbidea cerca del Instituto Koldo Mitxelena.

La obra tendrá continuidad en 2019.

**Programa 15110.- Urbanismo: planeamiento, gestión, ejecución y disciplina urbanística.**

Partida. PLAN GENERAL:.....50.000,00 euros.

Redacción de la revisión del documento del Plan General.

**Programa 15220.- Conservación y rehabilitación de la edificación.**

Partida. SUBVENCIONES A LA REALIZACIÓN  
DE ITEs Y OBRAS DE REHABILITACIÓN.....  
.....100.000,00 euros.

Subvenciones para la realización de Inspecciones técnicas de las edificaciones (ITE) del Casco Histórico así como otras obras de rehabilitación.



Partida. EKINTZAK HIRIGUNE  
HISTORIKOKO  
LOKALETAN:.....10.000,00 euro.

Hirigune Historikoko lokalen erabilera bultzatzea komertzioa eta eremua bera berreskuratzeko.

Partida. HIRIGUNE HISTORIKOKO PAISAI  
EKINTZAK:.....30.000,00 euro.

Paisaiaren harmonia eta lkuspegi historikoa babesteko, eraikinetan eta eremuan izango diren ekintzak.

Partida. HIRIGUNE HISTORIKOKO  
ETXEBIZITZEN EKINTZA PLANA:.....25.000,00 euro.

**171.00 Programa.- Parke eta lorategiak.**

Partida. ARRAMENDI PARKEA:.....  
.....100.000,00 euro.

Parkean erabilpena indartzeko ekintzak eta bere baliabideak obetzeko, prozesu parte-hartzaileko batetik eratorriak.

**172.10 Programa.- Hiriguneetako hots, argi eta atmosfera kutsaduraren aurkako babesa.**

Partida. FANDERIAKO ERROTA: IBAIAREN  
INTERPRETAZIO GUNEE  
(ULO):.....40.000,00 euro.

Fanderiako Errotan Ibaiko Interpretazio Zentrua irekitzeko egin beharreko lanak.

Partida. ACCIONES EN LOCALES DEL  
CASCO HISTÓRICO:  
.....10.000,00 euros.

Fomentar la utilización de los locales para impulsar el comercio y la recuperación del Casco Histórico.

Partida. ACCIONES PAISAJÍSTICAS EN EL  
CASCO HISTÓRICO:.....30.000,00 euros.

Actuaciones en inmuebles y en la zona con el fin de proteger las perspectivas del conjunto histórico y la armonía del paisaje.

Partida. PLAN DE VIVIENDA DEL CASCO  
HISTÓRICO:.....25.000,00 euros.

**Programa 171.00.- Parques y jardines.**

Partida. PARQUE ARRAMENDI:  
.....100.000,00 euros.

Actuaciones en el ámbito del parque para potenciar y mejorar sus condiciones de uso, derivadas de un proceso participativo.

**Programa 172.10.- Protección contra la contaminación acústica, lumínica y atmosférica en las zonas urbanas.**

Partida. MOLINO DE FANDERÍA: CENTRO  
DE INTERPRETACIÓN DEL RÍO (PMS):.....  
.....40.000,00 euros.

Obras necesarias para la proceder a la apertura del Centro de Interpretación fluvial en el Molino Fandería.



**333.30 Programa.- kultur ekipamenduak.**

Partida. LEKUONAKO KULTUR  
ZENTROAREN LANAK (ULO):.....2.800.000,00 euro.

Lekuona Fabrika erabiliko da tokiko sorkuntza intelektual, teknologiko, artistiko eta zientifikorako. Sorkuntza-liburutegi bat, erakusketa-espazio bat eta erabilera anitzeko espazioak izango ditu.

**Programa 333.30.- Equipamientos culturales.**

Partida. OBRA DEL CENTRO CULTURAL DE  
LEKUONA (PMS):.....2.800.000,00 euros.

La Fábrica Lekuona se destinará a un espacio local para la creación intelectual, tecnológica, artística y científica. Incluirá una biblioteca de creación, un espacio de exhibición y espacios multiusos.

**342.10 Programa .- Kirol instalazio nagusiak**

Partida. FANDERIAKO FRONTOIAREN  
PROIEKTUA:.....30.000,00 euro.

Kantxan dauden hezetasun arazoak bideratzeko lanak.

**Programa 342.10.- Instalaciones deportivas principales**

Partida. PROYECTO FRONTÓN  
FANDERIA:.....30.000,00 euros.

Trabajos para eliminar las humedades que afectan al suelo de la cancha.

Partida. BERAUNGO FUTBOL ZELAIAREN  
PROIEKTUA:.....40.000,00 euro.

Eraikina, pistak eta zelaiaren zoladuraren birgaitze lanak biltzen ditu.

Partida. PROYECTO CAMPO DE FÚTBOL DE  
BERAUN:.....40.000,00 euros.

Se incluyen actuaciones de rehabilitación del edificio, pistas y pavimento del campo.

**431.00 Programa.- Merkataritza**

Partida. MERKATARITZA SUSTATZEKO  
PLANA:.....34.000,00 euro.

Merkataritzaren| garapena udalean bultzatzera bideratutako akzioak bultzatzeko.

**Programa 431.00.- Comercio**

Partida. PLAN REHABILITACIÓN  
COMERCIAL:.....34.000,00 euros.

Para impulsar las acciones encaminadas a potenciar el desarrollo del comercio en el municipio.



**SARREREN EGOERA:**

Sarrerren egoera kalkulatu da 2016. ekitaldiko likidazioaren datuak eta sarrerek 2017ko lehenengo bederlatzi hilabeteetan izandako bilakaera kontuan hartuta.

Aldi berean, kontuan hartu dira 2018ko ordenantzen inguruan hartu diren akordioak.

Transferentzia edo diru-laguntzei dagokienez, hauek adierazi behar dira, dagozkien gastuekin batera:

**ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGA:.....180.498,83 euro.**

Diru-sarrera gehitzea Xenpelar kalean 2 , Miguel Alduntzin kalean 7 eta Madalen kalean 21-23 zenbakietan egiteke dauden eraikinak kontuan hartuta.

**HIRIGINTZAAPROBETXAMENDUA:.....  
.....110.000 euro.**

Gutxienez, Xenpelar kalean 2 eta Madalen kalean 21-23 zenbakietako hirigintza-aprobetxamenduengatik.

**E.J.: HIRIGUNE:..... 30.498,83 euro.**

Hiri merkataritzaren lankidetzeta, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntzen programa - Hirigune, beste ekintzen artean koexistentziako kaleak sortzeko dirulaguntza bat da.

Gastua ordaintzeko diru-izendapena 2017ko aurrekontuan diruzaintzako gerakina dela eta sortutako partidari dagokio.

**ESTADO DE INGRESOS:**

Han sido calculados tomando como base los datos de liquidación del ejercicio 2016, y la evolución de los ingresos en los nueve primeros meses del año 2017.

También se han tenido en cuenta los acuerdos adoptados en relación a las ordenanzas fiscales del ejercicio 2018.

En relación a las transferencias o subvenciones previstas cabe mencionar las siguientes, junto a sus correspondientes gastos:

**IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES E INSTALACIONES:.....180.000,00 euros.**

Se contemplan un incremento en los ingresos derivados de las licencias de construcción debido a las construcciones previstas en Xenpelar kalea 2, Miguel Alduntzin kalea 7 y Madalen kalea 21-23

**APROVECHAMIENTOS URBANÍSTICOS:.....  
.....110.000 euros**

Se contemplan al menos por los aprovechamientos urbanísticos de Xenpelar kalea 2 y Madalen kalea 21-23

**G.V.: HIRIGUNE:.....30.498,83 euros.**

Programa de ayudas destinadas a incentivar las estrategias zonales de cooperación, dinamización y competitividad comercial urbana - Hirigune, en otras medidas se subvenciona la realización de calles de coexistencia.

La consignación presupuestaria del gasto asociado corresponde a una partida creada del remanente de tesorería en el presupuesto del ejercicio 2017.



**153.20 Programa.- Bide publikoen zolaketa.**

Partida. MORRONGILLETA KALEA  
BERRURBANIZATZEA BIZIKLETA-BIDE BAT  
EGITEKO. 1 ZATIA:BITERI ETA BIDASOA KALEAK

**E.J.: IRISGARRITASUNA:.....85.700,00 euro.**

